# Bestelako Xedapenak

## HERRIZAINGO SAILA

### 6071

EBAZPENA, 2009ko urriaren 26koa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariarena, larrialdiko egoerei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimendutan bete beharreko autobabes-betekizunak arautzen dituen dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena.

Larrialdien Kudeaketari buruzko Legeak 11.1 artikuluan agintzen duenez, arauz katalogo bat finkatu beharra dago, honako hauek bilduko dituena: pertsonentzat eta horien ondasun eta ondare kolektiboarentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak, jarduera horiek garatzen diren toki edo/eta establezimenduak eta kasu bakoitzean bete beharreko autobabes-neurriak.

Katalogo horretan jasoko da, gutxienez, Babes Zibilari buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legearen 5. artikuluan aipatzen den katalogoaren edukia. Artikulu hori martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretuaren bidez garatu zen (393/2007 Errege Dekretua, larrialdi-egoerak eragin ditzaketen jarduerak garatzen dituzten zentro, establezimendu eta aretoetan autobabeserako oinarrizko araua onartzen duena).

Proiektu honek autobabesa definitu eta garatzen du eta Herri Administrazioek ezarri beharreko kontrol-mekanismoak zehazten ditu, Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen 9., 10. eta 11. artikuluetan ezarritakoa betez. Horretarako, estatuko autobabeserako oinarrizko arauan ezarritako gutxieneko edukiak barne hartzen ditu, eta autobabeseko egitekoetan sakondu egiten du, batetik, bere eraginpeko jardueren eta establezimenduen katalogoa handituz eta, bestetik, bere egitekoak estatuko araudi horretan jasotako gutxienekoetatik haratago zabalduz.

Aipatutako legearen 8.1 artikuluarekin bat etorriz, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Izan ere, araudi honen eraginpeko pertsona, enpresa eta entitateak ez daude beti bildu edo ordezkatzen dituen elkarte edo erakunde batean sartuta; horregatik, entzunaldia zuzenean egingo da, 8/2003 Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 6071

RESOLUCIÓN de 26 de octubre de 2009, del Director de Régimen Jurídico y Servicios, por la que se acuerda someter a información pública el proyecto de Decreto por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.

El artículo 11.1 de la Ley de Gestión de Emergencias ordena que reglamentariamente se establezca un catálogo de actividades susceptibles de generar riesgos para las personas, sus bienes y el patrimonio colectivo, de los lugares y/o establecimientos en que tales actividades se desarrollen, y las medidas de autoprotección obligatorias para cada caso.

Dicho catálogo habrá de incluir como mínimo el contenido del catálogo a que hace referencia el artículo 5 de la Ley 2/1985, de 21 de enero, de protección civil, el cual ha sido desarrollado por Real Decreto 393/2007, de 23 de marzo, por el que se aprueba la Norma Básica de Autoprotección de los centros, establecimientos y dependencias dedicados a actividades que puedan dar origen a situaciones de emergencia.

El presente proyecto define y desarrolla la autoprotección y establece los mecanismos de control por parte de las Administraciones Públicas, dando cumplimiento a lo previsto en los artículos 9, 10 y 11 de la Ley de Gestión de Emergencias. Para ello incorpora los contenidos mínimos previstos en la Norma Básica de Autoprotección estatal, al tiempo que profundiza en los deberes de autoprotección tanto ampliando el catálogo de actividad y establecimientos sujetos, como extendiendo dichos deberes más allá de lo dispuesto con carácter mínimo en la citada normativa estatal.

De acuerdo con el artículo 8.1 de la citada Ley, las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas serán objeto del trámite de audiencia; asimismo se someterán a información pública cuando la naturaleza de las disposiciones lo aconseje.

En efecto, la regulación que se pretende afectará a personas, empresas y entidades no siempre integradas en organización o asociación alguna que las agrupe o represente, por lo que la audiencia debe realizarse directamente, de acuerdo con el artículo 8.3 de la Ley 8/2003.

Adierazitakoaren ondorioz, eta abenduaren 22ko 8/2003 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14.2.h) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz,

EBATZI DUT:

1.– Larrialdi-egoerei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimendutan bete beharreko autobabes-betekizunak arautzen dituen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea; hogei egun baliodunetan egongo da jendaurrean proiektua, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorietarako, eta nahi duenak alegazioak aurkezteko, dekretu-proiektuaren edukia Herrizaingo Sailaren Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteizko Donostia kalea, 1ean) egongo da eskuragai, bai eta interneteko www.euskadi.net/emergencias112 web orrian ere.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 26a.

Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.

Por lo expuesto, de conformidad con la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, con la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y con el artículo 14.2.h) del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

RESUELVO:

1.– Someter a información pública por un período de veinte días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, el proyecto de Decreto por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.

2.– A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior y en orden a la presentación de alegaciones, el contenido del Proyecto de Decreto se hallará disponible en la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios del Departamento de Interior, sita en Vitoria-Gasteiz, c/ Donostia-San Sebastián n.º 1, y en la página web de internet www.euskadi.net/emergencias112.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de octubre de 2009.

El Director de Régimen Jurídico y Servicios,
IÑAKI CALONGE CRESPO.